

MINTEGI TEKNIKOA: BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

Alicia Suso / Imanol Zubero

ONDORIOAK



**BOLUNTARIOTZAREN
EUSKAL KONTSEILUA**
**CONSEJO VASCO
DEL VOLUNTARIADO**



EDUKIAK

1. Mintegiaren justifikazioa eta helburuak.....	1
2. Lehen saioa: 2013ko abenduak 13.....	2
3. Bigarren Saioa: 2014ko urtarrillak 16.....	13
4. Ondorio eta proposamenak.....	23
5. Parte-hartzaileak	25

1. Mintegiaren justifikazioa eta helburuak

Eusko Jaurlaritzak eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak bultzatutako 2013-2013ko boluntariotzarako Euskal Estrategiaren baitan, boluntariotzaren eta haren esparruaren kontzeptuak mugatzeko eta argitzeko lanean aurrera egitera zuzendutako mintegi teknika egitea proposatu zuten. Bertan, partaidetza sozialeko gainerako adierazpenekin duen loturaren inguruko hausnarketa egingo litzateke.

Zalantzarik gabe, XXI. mende honetako lehen hamarkadan, herritarren partaidetza soziala handiago egin da eta, aldi berean, horretan esku hartzen duten pertsonen eta kolektiboek egindako eskaerak, motibazioak eta adierazpenak aldatu egin dira. "Hirugarren sektorea" izenekoak izan duen gorakada edo alterglobalizazioko mugimenduen edo duela gutxi ikusi dugun M15 mugimenduaren antzeko beste fenomeno batzuk gizarte zibilak protagonismoko kuota handiagoak eskuratzeko egin duen eskaeraren isla dira. Horien bidez, demokrazia osoagoaren noranzkoan sakondu eta aurrera egingo duen herritarren inplikazio handiagorekiko interesa eta beharra aldarrikatu nahi dituzte.

Dena den, ekintza boluntarioa beti mugitu izan da oso zabala eta lausoa den eremu teoriko eta praktikoan, eta hainbat dimentsiok gurutzatzen dute. Testuinguru sozial, kultural eta ekonomiko gorabeheratsu honetan, oraindik ere ez dago oso argi Partaidetza Soziala eta Boluntariotza zer diren eta zer lotura duten. Gainera, oraindik ez dago boluntariotza zer den edo zer ez den zehazten duen definizio bateraturik edo onaturik. Oraindik ere nahasmendu teorikoa eta analitikoa dago honako kontzeptu hauek aipatzen ditugunean: gizarte zibila, hirugarren sektorea, asozianismoa, herritarren parte-hartzea, gizarte-mugimenduak, GKEak eta abar. Horrek guztiak asko zail ditzake antolatutako partaidetza sozialaren garapena eta sustapena.

Gako horietatik abiatuta, mintegia Euskadiko partaidetza sozialarekin lotura duten adituen talde anitzak eta pluralak (haien adierazpen ugarietaz) zuzendu du helburu hauekin:

1. Boluntariotza hitzaren irismena eta kontzeptuen mugak argitzea.

BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

2. Gizarte osoari boluntariotza zer den, zer egiten duen eta zer ordezkatzeko duen hobeto jakinarazteko oinarriak finkatzea (diskurtso komunean aurrera egitea).

3. Antolatutako partaidetza sozialeko gainerako adierazpen eta eremuekin ekintza boluntarioak/boluntariotzak duen lotura eta gizarte zibilaren testuinguruan betetzen duen gunea eta rola sakontzea.

Mintegia Herritartasunaren Europako Urtearen baitan egin dugu; hori dela eta, gure euskal gizartean herritartasun aktiboari eta partaidetza sozialari balioa emateko ere balio beharko luke.

2. Lehen saioa: 2013ko abenduak



BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

2.1 – Lehenengo eta behin, "boluntarioritza" kontzeptua zein "borondatezko erakundea" kontzeptuak eztabaidagarriak direla aitortu eta zehaztu beharra dugu.

Esaten duena ezagutzen dugun arren, goiza hasteko, Nazio Batuen Boluntarioen testua gogoraraziko dugu eztabaida hori islatzen eta horri aurre egiteko lehen urrats gisa proposatzen lagunduko digulakoan. Aipatutako testua kopiatuko dugu jarraian:

Nazio Batuen Erakundeko boluntarioak. Boluntarioritza eta gizartearen garapena. Aditu-taldearen bileran eztabaidatzeko aurrekariaren dokumentua. Nueva York, 1999ko azaroak 29 eta 30.

http://www.boluntarioritza.net/comun/biblioteca/voluntariado_y_desarrollo_social_UNU.pdf

Boluntarioritzak ez du esanahi berdina denontzat. Egin berri duten azterlan batek (Cnaan et al, 1998) erakutsi du **boluntarioritzaren pertzepzioa aldatu egiten dela herrialde batetik bestera.** Zenbait herrialdeetan, borondatezko lantzat hartzen da odola ematea eta beste batzuetan, alderdi politiko edo sindikatu bateko partaide izatea boluntarioritza da. Batzuen ustez, ordainsaririk ez izateak definitzen du boluntarioritza eta beste batzuen ustez, berriz, hertsadura-faltak. **Boluntarioritzak askotariko formak eta esanahiak hartzen ditu inguruaren arabera eta asko eragiten diote toki baten historiak, politikak, erlijioak eta kulturak.** Herrialde batean borondatezko lantzat dutena, gaizki ordaindutako lantzat, edota esku-lanaren dentsitate handitzat (edo behartutako lantzat) har dezakete beste batean. Hala ere, interpretazioak era askotakoak badira ere, borondatezko jardueren oinarritzko bereizgarri batzuk identifika daitezke. Are gehiago, funtsezkoa da hori egitea. Boluntarioritzaren elementu komunak gainean irizpide partekaturik ez bagenu, termino honek ez luke zentzurik izango eta gobernuek boluntarioritza sustatzeko egiten dituzten saiakerak alferrikakoak izango lirake. Testuinguruaren askotariko izaera kontuan izango duen definizio absolutua ez dago planteatzerik, baina **era daiteke kontzeptu-esparru orokor bat**, argi ezarritako muga batzuen barruan modu bateko eta besteko interpretazioak hartzeko.

Funtsezko bost elementu ditu esparru horrek. **Lehen, ordainsariaren kontzeptua da.** Definizio batzuen arabera, altruismo purua bakarrik hartu behar litzateke borondatezko lantzat, baina beste batzuen esanetan, ez dago altruismo pururik eta boluntarioritzaren forma guztiek dute trukeari eta elkarrekikotasunari lotutako alderdi bat. Hortaz, definizio batzuek onartzen dute boluntarioek nolabaiteko ordainsari ekonomikoa jasotzea (gastuak ordainduta edo beste nolabaiteko ordainketa bidez) edo ez jasotzea eta horren ordeztrebakuntza edo egiaztagiriak jasotzea. Boluntarioritzaren eta ordaindutako lanaren arteko bereizketaren funtsezko muga zera da, boluntarioak ez duela jarduerari hori onura ekonomikoagatik egiten eta, gainera, ordainetan jasotzen duenaren balioak egindako lanaren balioa baino txikiagoa izan behar duela.

Borondate librearen kontzeptua da bigarrena. Definizio gehienek onartzen dute boluntarioritzaren eta hertsatzearen ideiak ez direla bateragarriak. Horregatik, behartutako lanari buruzko Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmenen aurkakoak diren planak ez dira, jakina, borondatezko lantzat hartzen. Baina ordainsariaren kontzeptua hizpide hartzen dugunean bezala, hemen ere eremu grisak

BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

ere sortzen dira. Zer dira komunitatearen zerbitzurako egiten diren eskola-planak, baldin eta plan horiek ikasleei borondatezko lanean parte hartzeko motibazioa eta, batzuetan, beharra, ekartzen badiete? Edota Janaria Lanaren Truke, komunitatearekiko konpromisoaren eta elikagaietan laguntzearen arteko truke esplizitua badago? Eta herritarren zerbitzurako planak, soldadutzaren ordeko zerbitzu komunitarioa egiteko aukera eskaintzen badute? Kontzeptu-esparru zabalak erakusten du zaila izan daitekeela borondatezko interakzio guztietan borondate askearen kontzeptuari bakarrik eustea –boluntario-lana egiteko motibazioan, beharbada, kideen presioa eta betebeharrak sozialek ere sartzen dira–, baina gobernuak jendea parte hartzera motibatuzko egiten dituen saiakera guztiak biltzen ditu.

Hirugarren onuraren izaera da Boluntariotza eta dibertimendu hutseko borondatezko jarduerak bereizteko, boluntarioa bera ez den beste onuradun batek egon behar du, edota boluntarioaz gain, beste onuradun batek ere egon behar du. Baina ez dago garbi mugako lerroa non kokatu behar den. Batzuen ustez, onuradunak ezezaguna izan behar du boluntarioarentzako eta besteek onartzen dute hor bizilagunak, lagunak eta urruneko senideak sartzea. Beste batzuek autolaguntza edo elkarri laguntzea kontzeptua ulertzen dute eta hor norberarentzako onuraren eta hirugarren batentzako onuraren arteko muga oso lausoa da. Modu askotako interpretazioak egiteko bidea ematen badu ere, kontzeptu-esparru orokorrak onuradun (kontzeptu abstraktuak har ditzake; hala nola ingurumena edo gizartea bera) edo onuradun talde identifikagarri bat egotea eskatzen du boluntarioaren zuzeneko familiakoez edo lagunez gain. Hor sartuko lirateke autolaguntza eta elkarri laguntzea, baina ez mendekotasunak dituzten familiakoei laguntzea.

Laugarrena antolagarri dagokiona da. Boluntariotzaren definizio batzuen arabera, erakunde formal, boluntario eta irabazi-asmorik gabeko baten bidezkoa izan behar du borondatezko lanak. Beste definizio batzuetan sektore publikoan edo enpresa-sektorean egiten diren jarduerak ere sartzen dira. Eta badira erakundearen eskakizun hori malgutu eta modu informalean egindako jarduerak onartzen dituztenak ere, bai bakarka egindakoak, esaterako bizilagun bati laguntzea, bai modu isolatuan egiten direnak, adibidez, herritarren arloko jarduerak, hala nola zaborra biltzea. Hemen proposatu dugun esparru zabal honek aukera ematen du boluntariotzaren bi moduak, formala (antolatua) zein informala (bakarkakoa) aintzat hartzeko, baita borondatezko jarduerak sektore publikoan nahiz pribatuan egiteko ere.

Azken elementua konpromiso mailari lotuta dago. Definizio batzuek aparteko borondatezko jarduerak aintzat hartzea ahalbidetzen dute; beste batzuek nolabaiteko konpromisoa eskatzen dute eta noizean behingo ekintzak baztertzen dituzte. Kontzeptu mailako testuinguru zabalari esker, konpromiso maila ugari multzoka dezakegu: konpromiso irmotik hasi eta noizbehinkako partaidetza artekoak. Dena den, bidezkoa dirudi boluntariotzaren gehiengoak nolabaiteko konpromiso jarraitua eskatzen duela ulertzeak.

Borondatezko jardueraren inguruko interpretazioak ugariak direla eta, ez da harrizkoa hitz horien inguruko desadostasunak izatea. Pertsona batzuk boluntariotza hitzaren aldekoak dira; beste batzuek, aldiz, nahiago dute borondatezko jarduera, borondatezko lana edo borondatezko ekintza hitzak erabiltzea. Herrialde batzuetan, karitatezko jardueraren modu tradizionalak eta herritarren konpromisoarekin eta partaidetzarekin lotutako modu modernoagoak bereizten dituzte. Termino ezberdinek, askotan, ingurune ezberdinetan oso esanahi ezberdinak dituztela ulertzen dugun arren, **dokumentu honetan, boluntariotza eta borondatezko jarduera hitz trukagarri gisa erabiliko ditugu** lehen zehaztu dugun kontzeptu mailako testuinguru zabalak jasotzen dituen jarduera ugariak deskribatzeko. **Terminologia mailako antzeko zailtasunak daude boluntariotzaren zati gehiena**

BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

***egiten den erakundeei dagokienez.** Borondatezko erakundeak, komunitate taldeak, herritarren erakundeak, hirugarren sektoreko elkarteak, gobernuz kanpoko erakundeak eta irabazi-gabeko erakundeak dira Estatuaz eta merkatuaz kanpoko esparrua betetzen duten erakunde mailako egitura multzoa deskribatzeko erabiltzen diren hitzak. Banakako borondatezko jarduera deskribatzen duten hitzekin gertatu ohi den moduan, hitz horiek guztiek zentzuari dagokionez alde txikiak (edo ez horren txikiak) dituzte beren artean. Baina **dokumentu honen helburuetarako, komunitateko eta borondatezko erakunde hitza aukeratuko dugu** erakunde-egitura ugari horiek multzokatzeko.*

Testuak **ekintza boluntarioarekin lotutako bost eztabaida** identifikatzen ditu. Gure ustez, behar bezala islatzen dituzte boluntariotzaren mundura gerturatzen garenean aurre egin behar izaten digun oinarritzko arazoak:

Ordainketa	Altruismo garbia
	Ordainketa ez-ekonomikoa
	Ordainketa ekonomikoa
Boluntariotza	Erabatekoa
	Erlatiboa (komunitate-zerbitzua, kontraprestazio soziala)
Onuradunaren izaera	Abstraktua eta orokorra
	Zehatza, baina arrotza
	Zehatza eta gertukoa
	Autolaguntza
Erakunde mailako ingurunea	Erakunde informala, banakakoa
	Hirugarren sektoreko erakunde formala
	Sektore publiko edo pribatuko erakunde formala
Konpromiso maila	Jarraitua
	Noizbehinkakoa

BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

2.2 - Hasteko, gainera, boluntariotzarekin lotutako zalantzez eta kritikez gain, ekintza kolektiboko modu horren inguruko konfiantzazko/apustuko adierazpenak ere badaudela aitortu behar dugu.

Azken urteotan, zenbaitek, boluntariotza oinarritzko ekintza sozial gisa ikusi du eta ez gure gizartean une historiko bakoitzean egon daitezkeen arazo sozialei erantzuna emateko soilik, baizik eta gizarteari arazo gisa aurre egiteko (haren produkzioko eta erreprodukzioko logikak barne hartuta).

Adibide gisa bakarrik bada ere, hogeitazko tartea duten bi aipatu behar ditugu. Biak pentsalari kritiko esanguratsuenak dira. Erreferentzia horien helburu bakarra sinplistegiak diren gerturatzeak ekiditea da, eta gogoraraztea ez dela boluntariotza definitzeko, autokontzientziako eta identitateko arazoak dituen bakarra. Gai hori bigarren jardunaldian landuko dugu espresuki eta zabal-zabal.

Juan Ramón Capella, *Los ciudadanos siervos* (Trotta, Madril 1993) liburuan

Gainerakoekin ordaindu gabeko lana komunean jartzen duen berdinen arteko elkarketa gisa ulertzen du bere burua. Lanaren emaitzaren hartzaila gizartea da eta, horregatik, jarduera publikoa da, nahiz eta ez izan estatu mailakoa. Langile baten jarrera du: eta ez soldadu batena. Ez du uste beste batzuei sakrifizioa eskatzeko eskubiderik duenik; asko jota ere, bere buruaren sakrifizioa eska dezake. Emantzipazioko bizimoduei ekiten saiatzen da horiek iraultzaren ondoren arte atzeratu gabe. Ez da ezinbestean emantzipazio sozialaren alderdi politikoenez arduratzen; izan ere, beharrezko eguneroko eraldaketez eta harreman sozialen alderdi estrapolitikoenez ere arduratzen da. Pertsonetikiko elkartasuna adierazten du, eta ez soilik pertsonen ideiekiko. Ez du sinesmenen oinarriaren inguruan esku hartzen hori eragotz badezake, ezagutzen oinarriaren gainean baizik. Zuzen daitekeen proiektu egokia haren praktikaren arabera hartzen du aintzat eta partekatutako egokitasun hori egiteko aukera modu autonomoan aztertzen du. Ez du helburuaren eta baliabideen arteko balio-hierarkiarik finkatzen. Espezie mailako kontzientzia bilatu nahi du; ez soilik klase edo beste talde sozial jakin bateko kontzientzia.

Marco Revelli, *Más allá del siglo XX* liburuan (El Viejo Topo, Madril 2002).

Atalaseaz haratago suma daitekeen eta erronka horietan barneratuta dagoen matxinadako eta elkartasuneko irudi bakarra, oraindik ere etorkizuneko itzalen artean nahasita, boluntarioarena da [...]; hauskorra eta zalantzazkoa da, eta oraindik ere baita ahula eta arina ere. Profil lausoak dituen egunsentiko irudi horren jaiotzaren aurrean gaude eta, zalantzarik gabe, aurretik bizi izan zen XX. mendeko militantearekiko ezberdina da (harrian eta metalean zizelkatua), edo baita hari kontrajarritakoa ere, erabat izaera "zibila" baitu (erakundeko eta gatazkako alderdi militar ororekin zerikusirik ez duena). Izan ere, berezko ahuleziaz baliatzen da indarra eta barreiadura lortzeko puntu gisa

BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

(zentralizazioko edozein ideiak eraginik ez duena) presentzia izateko, "politikoa ez den" izaera menderaezina baitu. [...] Doakoa eta erabilgarritasunaren logikarekin zerikusirik ez duelako zereginarekiko konpromisoa hartu duten boluntarioen komunitate sarean pentsatzea. Lotura sozialaren eta giza harremanen hemengo eta oraingo erreprodukzioaz arduratzen da.

Enrique Falcónen hausnarketa "Dimensiones políticas del voluntariado, de la promoción al cambio de estructuras" ("Boluntariotzaren dimentsio politikoak: sustapenetik egituren aldaketara"). Lan hori Ana María Rivasek ere jaso du lan honetan: **VOLUNTARIADO, SOCIEDAD CIVIL Y MILITANCIA** (Boluntariotza, gizarte zibila eta militantzia <http://www.accionculturalcristiana.org/pdf/volunt.pdf>)

Hauek dira boluntariotzarako aztertu dituen hiru aukerak:

a) Boluntariotza (joan, lagundu, sustatu... ondoren) zehatz-mehatz alderdi politikoa den horren mugan gelditu egiten da gero lekukoa militantzia tradizionalari (alderdiak, sindikatuak...) edo erabakien eta boterearen administrazio-zentroei emateko.

b) Boluntariotzak (joan, lagundu, sustatu... ondoren) modu aktiboan laguntzen du arlo politikoaren mugan eta mugimendu sozial berrien militantziarekin egituratzen da.

c) Boluntariotzak (joan, lagundu, sustatu... ondoren) bere dinamikan eta benetako jarduera-prozesuetan barneratzen du egiturak eraldatzera zuzendutako dimentsio politikoa eta mugimendu sozial berri gisa gauzatzen da.

Lehenengo aukeran, boluntarioak eta militanteak beren artean isolatuta dauden ekintza-esparruetakoak dira eta nahiz eta haien artean elkarrizketa dagoen, eskumenak ondo bereizita daude: edo boluntarioa edo militantea. Bigarren aukeran, boluntariotza eragile bitartekaria eta komuna da mugimendu sozial klasiko berrietatik irekitako prozesu politikoetan: boluntarioa eta militantea. Hirugarren aukeran, boluntariotzak militantzia-kutsua ematen dio bere buruari eta berezko asmo politikoa esplizitatzen du veste edozein mugimendu sozial berri egin ohi duen moduan: boluntarioa eta, horrenbestez, militantea. Lehen aukeraz es ditu dimentsio politikoak eta boluntariotzako agenda politikoak ezagutzen. Beste biek, ordea, agenda politiko horren egoera aztertzen arinegi hasten da egitura mailako eraldeketa helburuan zuzendu nahi duen erronka bere eginez.

Eztabaiden/potentzialen oinarri horretatik abiatuta, lanari ekin genion.

2.3 - Lanaren lehen unean, esperientzian oinarritutako lehen gerturatze intuitiboan zentratu ginen. Bertan, parte-hartzaile bakoitzak bere jardunbidea definitu zuen aukera batzuen artean hautatuta

1. Boluntariotza/ ekintza
2. Konpromiso hiritarra
3. Militantzia soziopolitikoak
4. Partaidetza soziala
5. Beste batzuk (zehaztu)




zuen

BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

Jardueraren emaitza azaltzen da hurrengo taulan:

Boluntariotza/ ekintza boluntarioa	Konpromiso hiritarra	Militantzia soziopolitiko	Partaidetza soziala	Beste batzuk (zehaztu)
7 txartel eta bat horiarekin nahastuta (partaidetza soziala)	13 txartel eta bat horiarekin nahastuta (partaidetza soziala)	5 txartel	7 txartel eta hiru nahastuta: bat urdinarekin (boluntariotza), beste bat berdearekin (konpromiso hiritarra) eta beste bat berdearekin eta urdinarekin (boluntariotza eta konpromiso hiritarra)	4 txartel eta kolore guztiak nahastuta zituzten beste bi (militantzia oinarri). Konpromiso soziala. Boluntarioaren izaera hori aztertzeko bakoitzaren beharra. Boluntario izateak elementuen nahasketa izan behar du: partaidetza, konpromisoa... Politikaren aurreko eremuan egiten dugu lan. Hiritartasun inklusiboa eraikitzen dugu.
guztira, 8	guztira, 14	guztira, 5	guztira, 10	guztira, 6

Ikus dezakegun moduan, parte-hartzaile gehienek hitz hauek erabili zituzten beren jardura identifikatzeko: "konpromisoa" (hiritarra, baina baita soziala edo herritarrena ere) eta "partaidetza soziala". Horrekin lotuta, harridura sortu zuen "boluntariotza" hitza nahiko gutxitan atera izanak eta, batez ere, ez izatea aukeratutako lehen kontzeptuetako bat.




BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

Emaitzak ikusita, hitz horietako bi, **konpromisoa eta partaidetza**, **testuinguru barneratzaile** gisa atera ziren: lehenengoa motibazioen ikuspegitik, eta bigarrena, aldiz, praktikari dagokionez. Beste biak, aldiz, pertsona askorentzako partaidetzarako edo konpromisoko modu gisa zehaztu zituzten. Alde nagusiak parte hartzeko edo konpromisoa hartzeko bi modu horien artean daude (jarraian ikusiko dugun moduan).

2.4 - S Laneko bigarren momentua: zer da boluntariotzaren bereizgarria?

Bigarren une horretan, boluntariotzaren ezaugarriak sakondu nahi genituen ilitantziarekin kontrajarrita. Horretarako, honako hauek bereizten zituen taula lantzea proposatu genien: a) "boluntariotzaren espezifikoa", b) "partekatutako elementuak" eta c) "militantzia soziopolitikoaren espezifikoa". 8 lagun inguruko talde txikitik egin genuen lana eta, ondoren, talde bakoitzak bere lana aurkeztu zuen denen aurrean.



BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

Ekarpenak eta hausnarketak taula honetan islatzen saiatu gara:

<p>Boluntariotzaren espezifikoa [A]</p>	<p>Partekatutako elementuak [B]</p>	<p>Militantzia soziopolitikoaren espezifikoa [C]</p>
<p>[1] Salaketa, nahiz eta ez den lehenengoa lerroan (dimentsio hori ez zuten gehiegi azpimarratu, baina bistakoa da).</p> <p>[2] Laguntza, babesa kolektiboari eta/edo pertsonari.</p> <p>[3] Legeak emandakoa.</p> <p>[4] Ekintzak bideratzen gaitu ideia, ideologiara. Zehaztetik egitura mailakora joaten da.</p> <p>[5] Giza balioa.</p> <p>[6] Ez da beharrezkoa proiektuarekiko lotura.</p> <p>[7] Hautaketa askea.</p> <p>[8] Jomugan: hirugarren pertsona batzuk eta haien behar zehatzak.</p> <p>[9] Laguntzailea.</p> <p>[10] Egoera ahulean dauden kolektiboetan oinarritzen da batez ere.</p> <p>[11] "Arrainak banatzea".</p> <p>[12] Egitura sozialari, politikoari.. begiratzen zaio, baina arreta "bien bitartean..." egindakoari edo haren eraginak arintzean jarri ohi zaio.</p> <p>[13] Beti ez du elementu ideologikoa jasotzen.</p> <p>[14] Zereginean zentratuago dago eraldaketa sozialeko helmugan baino.</p>	<p>[1] Eraldaketa sozialaren helburua (nahiz eta ez dagoen zehaztuta zer den hori eta zein den haren atalasea).</p> <p>[2] Gizartea, pertsonak, kolektiboak... hobetzea.</p> <p>[3] Intentsionalitatea, plangintza, antolaketa...</p> <p>[4] Konpromisoa (beste maila batekoa, puntualagoa boluntariotzaren kasuan).</p> <p>[5] Kezka batetik abiatuta.</p> <p>[6] Doakotasuna (merkatuak ez du parte hartzen).</p>	<p>[1] Eragina du norberaren aukeraketak (nahi izatea beharrezkoa da eta horretara behartzen dut neure burua).</p> <p>[2] Arrainak ematetik, arrantzarako kanaberak eskatzera.</p> <p>[3] Gatazka-harremana boterearekin.</p> <p>[4] Ideiak ekintzara bultzatzen gaitu.</p> <p>[5] Ideologia da bultzatzailea.</p> <p>[6] Ez du legeak ematen.</p> <p>[7] Egitura-aldaketaren bilaketa.</p> <p>[8] Errealitatearen azterketa sakona eta kritikoa.</p> <p>[9] Pertsonak lotura handia dute proiektuarekin.</p> <p>[10] Helburua ondo zehaztuta dago.</p> <p>[11] Taldeko erabakiak bere egitea (taldea banakoaren gainetik).</p> <p>[12] Jomugan: egitura soziopolitiko.</p> <p>[13] Salaketako edo protestako ekintzarekin lotura handiena duten ekintzen katalogoa (nahiko tradizionalak).</p>

BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

Agerian geratzen da **zaila dela boluntariotzakoak soilik diren ezaugarriak topatzea** (ikus dezakegun moduan, hari esleitutako ezaugarri batzuk negatiboak dira, eta beste batzuk elementu komunetan azaltzen direnekin bat datoz).

Hipotesi moduan, ekintza boluntarioaren definizio-gabezia hori azaltzen duten arrazoi ugari egon daitekeela uste dugu. Lehenengoak lotura du laguntzarako boluntariotzaren garapenarekin; esku-hartze sozial klasikoarekin, militantziarekin, aldeak finkatzea du xede. "Boluntariotza" deitzen zaio legezko definizio oso zabalean sartzen den edozeri (Andrés García Indak honela izendatu du: boluntariotzaren administrazioko eraikuntza) baldin eta merkataritzako dimentsioa falta bazaio eta, bereziki, dimentsio politikorik ez badu. Boluntariotza honako hauetakoren bat dena bakarrik da: GKE (gobernuz kanpoko erakundea), irabazi-asmorik gabeko erakundea eta, batez ere, erakunde ez-ideologikoa. Ekintza boluntarioaren "eskuinetik" iristen zaigu definitzeko zailtasun hori.

Gainera, nolabaiteko gutxiagotasun-konplexua dago boluntariotzaren mundutik sortzen den identitatearen inguruko galderan. Kosta ahala kosta militantzia edo mugimendu sozial izan nahi duen konplexuz betetako boluntariotza, azkenean, ez da bere zehaztasun propioa onartzeko gai izaten. Zailtasun hori boluntariotzaren "ezkerraldetik" iristen da.

Azkenik, ekintza kolektiboaren errealitatearen arintasunarekin lotura duten definizioko zailtasunak daude. Izan ere, arintasun hori dela eta, ia ezinezkoa da muga zehatzak finkatzea. "Bakegintza sozialeko" boluntariotza albo batera utzita, herritarrek kontzientzia hartzetik sortu ohi den eta banaka edo modu kolektiboan egiten den esku-hartze soziala dago; boluntariotza sozial gisa identifikatu ohi den antolatutako esku-hartze soziala dago; eta mugimendu sozialetan, sindikatuetan eta alderdietan egiten den militantzia ere badago. Horrek guztiak lurralde komuna osatzen du. Moduei dagokienez oso anitza den ekintza kolektiboko lurraldea da eta Salvatore Vecak emantzipazioko tradizioaren araudi mailako gune izendatzen duena seriotzat hartzen duena da: pertsona guztien duintasun berdinen aldeko borroka, mundua nolakoa den eta nolakoa izan beharko lukeen gaien arteko aldea zalantzan jartzeari sekula utzi gabe.


BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

2.5 - Lehen saioko ondorioak

Laneko lehen saioak ez zigun utzi laneko gidoian aurrez ikusita genituen gai guztiak lantzen. Lehen egun horretako lanetik sortu ziren ondorio edo akordio nagusiak honela laburbil ditzakegu:

1. **Boluntariotza eta militantzia "konpromisoa" edo "partaidetza" dei diezaiokegun matrize inklusiboagoaren adierazpen praktikoak edo zehaztasunak dira** (abizen ezberdinak izan ditzakete horiek: soziala, hiritarra, zibikoa eta abar... bakoitzari dagozkion tradizio ideologikoen arabera).
2. Agian, **konpromisoaren eta partaidetzaren arteko alde hau zehaztu beharko genuke:**
 - a) **Konpromisoak bizipenen** eta jarrerren **dimentsioa** du: konpromisoa gure baitan dugun zerbait da; are gehiago: gure konpromisoak identifikatu egiten gaitu, eta gure nortasunaren oinarritzko zatia da: **garen zerbait da.**
 - b) **Partaidetzak dimentsio praktikoa** du: **egiten dugun zerbait da**, gure konpromisoa adierazteko modua da.

Hala balitz, konpromisoaren, partaidetzaren, boluntariotzaren eta militantiaren arteko konexio hau proposa dezakegu:



BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

Konpromisoa eta partaidetza hitzak testuinguru barneratzaile gisa azaltzen dira kasu horretan; lehenengoa motibazioen ikuspegitik, eta bigarrena praktikatik. Baina parte hartzeko bi modu zehatz horien arteko aldeak finkatu beharrekoak dira: militantziaren eta boluntariotzaren artekoak, alegia.

Horren inguruko adostasuna lortuz gero, oinarrizkoa partaidetzako bi adierazpen horiek artikulatzeko gaia lantzea litzateke. Horixe izan zen, hain zuzen ere, mintegiaren bigarren saioko proposamena.

3. Bigarren saioa: 2014ko urtarrilak

3.1 - Boluntariotzaren zehaztasuna sakontzea partaidetzako eta konpromisoa adierazteko modu gisa.

Gure lehen asmoa aurreko saioan boluntariotzaren espezifikotasunaren inguruko galdera egin genuen txantiloira itzultzea zen. Txantiloia hartatik abiatuta, taldeka egin beharreko laneko unea proposatu genuen gai hauen inguruan:

- 1) Txantiloia arretaz aztertzea. Zutabe bakoitzean azaltzen diren elementuak dauden tokian geratu beharko liratekeen edo haietakoren bat mugitu egin beharko litzatekeen erabakitzea. Adibidez: A5 "Giza balioa" dimentsioa ez al dago militantziaren barruan aldi berean? Kasu horretan, B zutabera aldatu beharko litzateke.
- 2) Boluntariotzako zehaztasun edo dimentsio batzuk modu negatiboan edo zerbait ez egitearen inguruan formulatuta daude: A1, A6, A12, A13, A14. Dagokionean, definizioa positiboan ematen ahalegindu beharko genuke, eta ez negatiboan. Aldi berean, gabezia edo egin gabeko horiek indargune diren edo boluntariotzaren gabezia diren galdetu beharko genioke geure buruari.

Gure helburua aurreko saioan egindako boluntariotzaren karakterizazioa "garbitzea" zen.

BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

3.2 - Beharrezkoa al da boluntariotza definitzea? Zer asmorekin?

Dena den, saioaren hasieran, eztabaida handia sortu zen. Nolabait, **mintegiaren helburua ezbaian jarri edo zehaztu egin zuten** boluntariotzaren inguruko definizio zehatza bilatu nahi izatea egokia zen zalantzan jarrita. Zalantza hori agertu zutenek esandakoaren arabera, oso ondo zehaztuta zegoen definizioak boluntariotza modu ugari baztertuta uzteko arriskua ekar zezakeen. Hori dela eta, boluntariotzaren inguruko definizio zabalena eta barneratzailena abiapuntutzat hartuta lan egitea proposatu zuten. Protagonistek hala identifikatzen duten edozein ekintza barneratu beharko luke definizio horrek.

Planteamendu horrek elkarrizketa interesgarria, bizia eta luzea sortu zuen eta definizio "zabala" **aldeko eta aurkako** elementuak (eta, horrenbestez, nahiko bereizi gabea) eta definizio "zehatzagoarenak" mahaigaineratu zituzten. Hurrengo taulan ikus ditzakegu horren inguruan emandako argudio batzuk:

Definizio "zabala"	Definizio "zehatza"
Boluntariotzako beste modu batzuen inguruko iritzia ekiditen du, protagonistei auto-identifikatzeko aukera emanez	"Antzekoak" identifikatzen laguntzen digu
Gertu egotea eta partaidetzako beste modu batzuei erantzuna ematea ahalbidetzen digu	Aukeratu dugun (edo BEKek aukeratu duena) boluntariotza mota sendotzen duten neurriak eta ekintzak sustatzen eta herritartasun zehatz mota bat bultzatzen laguntzen du
Definizio zehatza egiteagoak, praktikan, administrazio arloko muga ezar dezake	Zabalegiak eta anbiguoegiak diren hitzek nahasmena sortzen dute

BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

Eztabaida hori gehiago sakontzeko eta teorikoezia den (hezurmamitze praktikorik gabea) eztabaidaren arriskua ekiditeko asmoz, abiapuntuko definizio gisa **Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko lan-talde iraunkorrak** proposatutakoa erabiltzea proposatu zuten. Aipatutako definizioa Boluntariotzaren Estatuko XV. Kongresuaren baitan prestatu zuten (Barakaldoko BECen, 2012ko azaroan):

Boluntariotza deitzen zaio interes orokorreko eta izaera solidarioko jardueren multzoak osatzen duen partaidetza sozialeko adierazpen zehatzari. Jarduera horiek irabazi-asmorik gabeko proiektu kolektiboa oinarritzat hartuta garatzen dute pertsonak. Partaidetzak askea izan behar du eta ez du loturarik izango laneko, funtzioen edo merkataritzako harremanekin edo betebeharrak pertsonal edo juridikorekin.

Boluntariotzak komunitateari zerbitzua emateko helburuarekin lan egiten du, eraldaketa eta guztien ongizatea lortzeko asmoz, eta beste gizarte-eragile batzuen ekintzarekiko osagarria da. Era berean, ez du balio administrazio publikoen erantzukizunaren utzikierarako edo zerbitzu profesionalak ez ordaintzeko.

Definizio hori baliagarria da **boluntariotzaren gunea mugatzeko** (edo boluntariotza baten gunea, ekintza boluntarioa ulertzeko modu jakin batena). Erabilgarri bihurtzeko asmoz, LTI-BEKEN definizioko eduki nagusiak identifikatu genituen jakintzat ez emateko asmoz, arazorik ekarriko ez balute bezala. Eduki horiek, ondoren, bost baieztapenetan zatitu genituen:

- a) Interes orokorreko eta izaera solidarioko jarduera multzoak osatzen duen partaidetza sozialaren adierazpen zehatza.
- b) Irabazi-asmorik gabeko proiektu kolektibo baten inguruan pertsonak garatutakoak.
- c) Partaidetzak askea izan behar du eta ez du loturarik izango laneko, funtzioen edo merkataritzako harremanekin edo betebeharrak pertsonal edo juridikorekin.
- d) Boluntariotzak komunitateari zerbitzua emateko helburuarekin lan egiten du, eraldaketa eta guztien ongizatea lortzeko asmoz.
- e) Beste gizarte-eragile batzuen ekintzarekiko osagarria da. Era berean, ez du balio administrazio publikoen erantzukizunaren utzikierarako edo zerbitzu profesionalak ez ordaintzeko.

BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

Zer esan dezakegu definizio horren inguruan? **Identifikatzen al gara horrekin?** Zalantzarik sortzen al digu? Orain arte lan egin izan dugun boluntariotzaren kontzeptualizazio-arazoren bat konpon al dezake?

Lan egiteko, **balioen barometroaren** dinamika erabili genuen. Aretoaren mutur batean, "AURKAKO ELEMENTUAK" jarri genituen, eta bestean "ALDEKOAK". Banan-banan, esaldiak aurkezten joan ginen eta bakoitza aretoko bi gune horiek lotzen zituen irudizko lerroaren gainean jartzen joan zen.



Jarraian, bakoitzak toki batean edo bestean kokatzeko arrazoiak azaldu ahal izan zituen eta azalpen eta sortu ziren eztabaida eta elkarrizketen ondorioz, batzuk hasierako tokia aldatu eta aldeko jarreraren eta aurkakoaren arteko irudizko ardatz horretan hainbat eratan lekuz aldatu ziren.

Dinamika oso interesgarria izan zen eta, amaitzean, honako hauek egiaztatu ahal izan genituen:

1. Oro har, LTI-BEK definizioa osatzen duten baieztapenekiko dagoen adostasuna nagusi da.
2. Adostasun hori oinarritzat hartuta, definizioa soiltzeko edo anbiguotzat hartutako erreferentzia batzuk ezabatzeko proposamena egin zuten. Batez ere, "interes orokorra" edo "guztien ongizatea" aipatzen duten erreferentziak ziren horiek.
3. Adostasun txikiena sortu zuen gaia boluntariotza beste eragile batzuen ekintza "osagarria" zela zioen erreferentzia izan zen. Osagarritasuna beharrean, lankidetzak biltzen duten adierazpenen aldeko apustua egin zuten.
4. "Eraldaketarekin" lotutako erreferentzia oso interesgarritzat identifikatu zuten. Bertara joandakoek nahi duten eta/edo erabiltzen duten boluntariotzaren berezko ezaugarritzat hartzen zuten, baina, aldi berean, definitzeko oso gai zaila zela esan zuten.


BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

3.3 - Baina, definizio horretan sar al ditzakegu gaur egungo boluntariotza guztiak?

LTI-BEKen boluntariotzaren definizioak beste batzuetatik bereizten den (ez hobea edo okerragoa delako) borondatezko ekintza mota jasotzen du. Bereizitasun nagusia joeraren arabera militantziara gerturatzen duen mugaketa partikularrak sortzen du (eraldaketa sozialera zuzendutako helburu esplizitua duelako) eta honakoen moduko beste boluntariotza batzuetatik bereizten du:

- ➔ boluntariotza korporatiboa (betetzen al du d irizpidea?);
- ➔ boluntariotza banakakoa eta antolatu gabea den jardunbide gisa betetzen al du b irizpidea?);
- ➔ auto-laguntzako edo elkarren laguntzako boluntariotza (betetzen al du a irizpidea?);
- ➔ laguntza sozial publikoen kontraprestazioko "boluntariotza" (betetzen al du e irizpidea?);
- ➔ ziberboluntariotza (betetzen al du b irizpidea?).

Hala al da? Gaur egungo boluntariotzako adierazpen guztiak biltzen ez dituen definizioaren aurrean al gaude? Mugaketa hori nahita bilatu al dugu? **Beharrezkoa al da era horretako mugaketa egitea?**




BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

Helburua ez da antolatutako borondatezko ekintza motak **epaitzea** eta are gutxiago elkartzasuneko edozein adierazpen pertsonal. Baina, agian, definizio horrek **boluntariotzaz hitz egitear**u utzi eta **boluntariotzez hitz egitera** (pluralean) behartu beharko gintuzke.

Seguru asko, horixe izango zen saioko **ondorio** argiena.

Bereizitako pluraltasuneko ideia horren ikusizko adierazpen gisa, parte-hartzaile batzuek **"boluntariotzaren etxea"** (edo boluntariotzen) izeneko irudia proposatu zuten. Definizio "zabaletik", handitik eta helburu barneratzailea duenetik eraikitako boluntariotzaren espazio handia adierazi nahi du etxe horrek. Ondoren, barne mailan, definizio "zehatzago" edo espezifikagoetatik abiatuta, hainbat "logela" edo espazio defini ditzake borondatezko ekintzaren benetako pluraltasun hori islatzeko asmoz. Hori guztia, gainera, "espazio komunak" edo partekatuak izanda egin daiteke, borondatezko ekintzaren adierazpen ugariak bat egin dezaten (prestakuntzarako, egiaztapen-lanak egiteko, elkarrekin ikasteko edo ekintza bideratzeko).

BOLUNTARIOTZAREN ETXEA



BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

3.4 - Boluntariotza praktikatik definituz

Amaitzeko, **definizio hori erabilgarri bihurtzea** proposatu zuten; hau da, praktikan aplika daitekeen definizio bihurtzea. Nola bidera gaitezke kontzeptualizaziora ekintzatik abiatuta? Zer zailtasun du horrek? Jarduera horren helburua boluntariotzaren praktikari, aukerei eta zailtasunei, kontraesanei eta abarrei buruzko gogoeta egitea zen. Interesatzen zitzaguna honako hau zen: **mintegian parte hartu duten pertsonen esperientzien errealitate zehatzetik ateratzea.**

Hori egiteko, aurreko saioan labur-labur aurkeztu genuen **borondatezko ekintzaren inguruko eztabaidak** berreskuratu genituen:

Ordainketa	Altruismo garbia
	Ordainketa ez-ekonomikoa
	Ordainketa ekonomikoa
Boluntariotza	Erabatekoa
	Erlatiboa (komunitate-zerbitzua, kontraprestazio soziala)
Onuradunaren izaera	Abstraktua eta orokorra
	Zehatza, baina arrotza
	Zehatza eta gertukoa
	Autolaguntza
Erakunde mailako ingurunea	Erakunde informala, banakakoa
	Hirugarren sektoreko erakunde formala
	Sektore publiko edo pribatuko erakunde formala
Konpromiso maila	Jarraitua
	Noizbehinkakoa

BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

Bost eztabaida horiei beste batzuk gehi dakizkiokegu. Hauek, adibidez:

Esparrua	"Soziala", modu eksklusiboan
	Beste edozein
Araudi mailako dimentsioa	Ideologia/gizarte-eredu esplizitua
	Aldaketa edo hobekuntza sozialeko ikuspegi abstraktua
	Esku-hartze praktikoa eta zehatzaren orientazioa, araudi mailako planteamendu zehatzik gabea

Parte-hartzaile bakoitzak bere ekintza boluntarioa edo militantea kokatuta zegoen laukiak markatu zituen (banaka). Ondoren, talde txikitan, elkarrekin bete zuten taldean txantilo bat. Jarraian, lanak bateratzeko denbora eman genien:

a) **ORDAINKETARI** dagokionez, hitz hori ordainarekin edo konpentsazioarekin ordezkatzeko iradoki zuten. Konpentsazio ekonomikoa ez zuen parte-hartzaileetako bakarrak ere kontuan hartu. Nahiz eta altruismo garbia den gehienek hautatutako aukeretako bat, existitzen ote den zalantzan jarri zuten. Talde batzuen ustez, beren borondatezko ekintza ordainketa ez-ekonomikoan kokatuta dago eta horren truke jasotzen dituzten onuren artean, honako hauek aipatu zituzten: ikasketak eta esperientziak, asebetetzea, prestakuntza, harremanak...

b) **BORONDATEZKOA IZATEARI** dagokionez, erabateko adostasuna dago erabatekoa dela dioen esaldian (puntu horretan ez dira onargarriak kontraprestazio soziala edo komunitatearen zerbitzua adierazpenak).

c) **ONURADUNAREN IZAERA**ren inguruan ere nolabaiteko adostasuna dago, baina ñabardura batzuekin. Pertsona gehienek ustez, beren borondatezko ekintza onuradun jakin bati zuzenduta dago. Ezezaguna edo gertukoa izan daiteke. Autolaguntza ez da boluntariotzarekin lotutako jardunbidea eta onuradun abstraktuaren eta orokorraren ideia ere ez zuen talde bakarrak ere aukeratu.

BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

d) Borondatezko ekintza garatzen duten ERAKUNDE MAILAKO INGURUNEARI dagokionez, parte-hartzaileek erosotasun handiena erakunde formalean (hirugarren sektorean) topatzen dute.

e) Beren borondatezko ekintzan hartzen duten KONPROMISO maila, gehienetan, jarraitua da. Ez dute kontuan hartzen aldizkako aukera eta kontzeptu interesgarri bat ere sartu dute ("finko etena") gure ingurunean ohikoa den konpromiso mota adierazteko: kausa, proiektu edo erakunde batekiko konpromisoa duten eta behar handieneko uneetan esku hartzen duten pertsonak (nahiz eta ez duten eguneroko lanean parte hartzen). Bi kasu horietan, dena den, konpromisoa handia da.

f) ESPARRUARI dagokionez, pertsona gehienak esparru sozialari atxikita daude (ikuspegi zabaletik ikusita).


g) ARAUDI MAILAKO NEURRIARI dagokionez, dimentsio ideologikoaz hitz egitea iradoki dute. La opción que excluye un planteamiento normativo expreso no es elegida por ninguno de los grupos, que se posicionan claramente entre una dimensión ideológica/modelo de sociedad explícito y la perspectiva abstracta de cambio o mejora social.

3.5 - Bigarren saioko ondorioak

Garrantzitsua da nabarmentzea **boluntariotza kontzeptualki mugatu beharraren inguruko zalantzak daudela** (behar hori administratibotik datorrela eta borondatezko pertsonen eta erakundeen mende baino, horren logikaren mende dagoela ematen du). Zalantza hori mahaigaineratu zutenek aipatutakoaren arabera, oso zehaztuta zegoen definizioaren arriskua boluntariotzako jardunbide ugari kanpoan geratzea izan zitekeen. Aurrera egin ahal izateko hitza "mugatu" eta boluntariotza mota jakin bat azpimarratu beharra dagoela dioten beste joera bat ere badago (gizarte- ere herritartasun-eredu bati lotuta).

BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

Boluntariotzaren eztabaiden inguruko adostasun handia dago. Ikuspegi praktikotik abiatuta, elementu hauetan oinarrituta dagoen boluntariotza mota da:



boluntariotzaren definizioak parte-hartzaileen artean **adostasun handia sortu zuen**, baina aipatu dugun moduan, haren elementu batzuk zehaztu egin dituzte edo gehiago sakondu beharra dagoela adierazi dute. Proposamen moduan bakarrik bada ere, jarraian, lan-saioan parte hartu zuten pertsonetako batzuek adierazitakotik abiatuta “zuzendutako” definizio hori aurkeztuko dugu:

Boluntariotza deitzen zaio ~~interes-erokorreko~~ eta izaera solidarioko jardueren multzoak osatzen duen partaidetza sozialeko adierazpen zehatzari. Jarduera horiek irabazi-asmorik gabeko proiektu kolektiboa oinarritzat hartuta garatzen dute pertsonak. Partaidetzak askea izan behar du eta ez du loturarik izango laneko, funtzioen edo merkataritzako harremanekin edo betebeharrak pertsonal edo juridikorekin.

Boluntariotzak komunitateari zerbitzua emateko helburuarekin lan egiten du, eraldaketa eta guztien ongizatea lortzeko asmoz, eta beste gizarte-eragile batzuen ekintzaren ~~osagarria da~~ elkarlanean. Era berean, ez du balio administrazio publikoen erantzukizunen utzikierarako edo zerbitzu profesionalak ez ordaintzeko.

4. Ondorio eta proposamenak

Laburpen moduan, mintegiko bi saioetan sortutako ondorio batzuk jasoko ditugu:

1. Boluntariotza eta militantzia "konpromisoa" edo "partaidetza" dei diezaiokegun matrize inklusiboagoaren adierazpen praktikoak edo zehaztasunak dira (abizen ezberdinak izan ditzakete horiek: soziala, hiritarra, zibikoa eta abar... bakoitzari dagozkion tradizio ideologikoen arabera). Bi adierazpen horien artean ez duela zertan inolako lehiarik eta are gutxiago kontraesanik egon beharko uste dute.
2. Agian, konpromisoaren eta partaidetzaren arteko alde hau zehaztu beharko genuke: a) Konpromisoak bizipenen eta jarreraren dimentsioa du: konpromisoa gure baitan dugun zerbait da; are gehiago: gure konpromisoak identifikatu egiten gaitu, eta gure nortasunaren oinarritzko zatia da: gu garen zerbait da. b) Partaidetzak dimentsio praktikoa du: egiten dugun zerbait da, gure konpromisoa adierazteko modua da. Konpromisoa eta partaidetza hitzak testuinguru barneratzaile gisa azaltzen dira kasu horretan; lehenengoa motibazioen ikuspegitik, eta bigarrena praktikatik.
3. LTI-BEKe proposatutako boluntariotzaren definizioarekiko oinarritzko adostasuna dago, baina definizioa soiltzeko edo anbiguoak izan daitezkeen erreferentzia batzuk desagerrarazteko modu ezberdinak proposatu dituzte. Definizio horren lehen berrikusketa-proposamena izan daiteke honako hau:

Boluntariotza deitzen zaio izaera solidarioko jardueren multzoak osatzen duen partaidetza sozialeko adierazpen zehatzari. Jarduera horiek irabazi-asmorik gabeko proiektu kolektiboa oinarritzat hartuta garatzen dute pertsonak. Partaidetzak askea izan behar du eta ez du loturarik izango laneko, funtzioen edo merkataritzako harremanekin edo betebeharrak pertsonal edo juridikorekin.

Boluntariotzak komunitateari zerbitzua emateko helburuarekin lan egiten du, eraldaketa eta guztien ongizatea lortzeko asmoz, eta beste gizarte-eragile batzuen ekintzarekiko osagarria da elkarlanean. Era berean, ez du balio administrazio publikoen erantzukizunen utzikierarako edo zerbitzu profesionalak ez ordaintzeko.

BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

4. Borondatezko ekintza eraldatzailearen aldeko apustua egin dute, baina eraldaketa horrek esku har dezakeen maila ugari dagoela ulertzen dute.

5. Boluntariotzarekin lotutako izateko eta egiteko moduetan pluraltasuna dagoela aitortzen dute eta balorazio positiboa du horrek. Ekintza boluntarioko errealitate ugari horiek lotzeko moduak topatzearen aldeko apustua egin dute, baztertu edo hierarkizatu gabe haien arteko bereizketa eginda eta baliabide eta esperientziak partekatze moduak bilatuta.

6. Borondatezko ekintza partaidetza sozialeko beste modu batzuekin lotzearen aldeko apustua egin dute. Hasiera batean, modu horiek ez dira “boluntariotzakotzat” hartzen administrazioko definiziotik zein partaidetzako errealitateetatik abiatuta. Bizilagunen elkarteak, mugimendu sozialak, partaidetzarako adierazpen berriak (PAH, M15, antiglobalizazioa) aipatu dituzte.

7. Boluntariotzaren kontzeptualizazioari eta partaidetza sozialeko beste modu batzuekin duen loturari buruzko eztabaida teoriko asko argitu edo desagertu egiten dira arlo praktikotik lantzen ditugunean. Oso garrantzitsua izan daiteke mintegian sortutako gai horiek lantzen jarraitzea, baina laneko elementu gisa boluntariotzako edo partaidetza sozialeko jardunbideen azterketa partekatua gehituta. Horren guztiaren bidez, LTI-BEKEN definizioak agindutakoaren ildo beretik sendotu beharko genuke boluntariotza.

5. Parte-hartzaileak

Jarraian, mintegi honetan parte hartu duten elkarte eta pertsona guztien serenad jasotzen dugu. Berriro ere, haien parte-hartzea eskertu nahian.

ENTIDAD	REPRESENTANTE
AECC Alava (Asociación E. Contra el Cáncer en Vitoria)	Alfredo Ibisate Ordex
ALBOAN	Cristina Maoño Portilla
Asociación Donantes de Sangre de Gipuzkoa	Sabin Urcelay Uranga
Astialdi Foroa	Oiane Fernandez
Ayuntamiento de Azkoitia	Amaia Argarate
BIGE (Bizkaiaiko Gurasoen Elkarte)	Iruñe Uria
Bizkaiko Urtxintxa Eskola	Amagoia Osinalde
bolunta (Agencia para el voluntariado y la Participación Social de Bizkaia)	Leire Ortiz de Zarate
bolunta (Agencia para el voluntariado y la Participación Social de Bizkaia)	Minerva León
bolunta (Agencia para el voluntariado y la Participación Social de Bizkaia)	Natxo Arnaiz
Caritas de Gipuzkoa	Argiñe Ugarte
Cáritas Diocesana de Bilbao	Amaia Ruiz Ucar
CEAR Área de Incidencia y Participación Social	Iñaki Ramírez de Olano
CEAR-EUSKADI	Verónica Álvarez
Colegio Público Artatse	Ángel Acebo
Consejo de Personas Mayores de Bizkaia	Sabin Ipiña
Consejo Vasco de Voluntariado	Roberto Vidal Failde
Coordinadora de ONGD de Euskadi	Idoia Aldama
Cruz Roja País Vasco	José Andres Illanas
Departamento de Empleo y Políticas Sociales de Gobierno Vasco	Pello Tellería Zeberio
Departamento de Empleo y Políticas Sociales de Gobierno Vasco	Ramón Andrinua
Departamento/Servicio de Inversión e Iniciativa Social Diputación Foral de Gipuzkoa	Rafael Hernández Irurzun
Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología de Gobierno Vasco	José Antonio Fernández Cagigas
Director de la Agencia de Cooperación al Desarrollo de Gobierno Vasco	Paul Ortega Etcheverry
Director de Política Familiar y Desarrollo Comunitario de Gobierno Vasco	José Luis Madrazo Juanes
DYA Gipuzkoa	Arantzazu Lersundi
EDE Fundazioa	María Gutierrez
EDE Fundazioa	Ignacio Sanz
EGK (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua / Consejo de la Juventud de Euskadi)	Itsaso Andueza Fernandez
EHU/UPV (Vicerrectorado de estudiantes, empleo y responsabilidad social)	Iratxe Amiano Bonatxea

BOLUNTARIOTZA ETA PARTAIDETZA SOZIALA: KONTZEPTUEN MUGAK

ELKARBANATUZ	Miren Méndez
EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN BATASUNA	Rubén Bueno Ortiz
Federación Asociaciones Vecinales de Bilbao	Francisco Javier Muñoz
Fundación ETORKINTZA	Tomás Cerro
Fundación Social Ignacio Ellacuría	Beatriz Marquina García
FUTUBIDE (Fundación Tutelar Gorabide)	Ricardo Sánchez Martínez
GAZTELEKU	Miguel Gómez
GIZALDE Voluntariado Gipuzkoa	Miren Gurrutxaga
GORABIDE	Pilar Gurtubay
GORABIDE (Directora del Servicio de Ocio)	Maite Fernández
HARRIBIDE Fundazioa	Jose Alberto Vicente
Inbersio, Ikuskapen eta Elkarlan Zerbirtzuburua Gipuzkoako Foru Aldundia	Aitor Rodriguez-Anabitarte
KIDETZA Federación de Euskadi de padres y madres separados - Abipase)	Txaro Fernández
KIDETZA Federación de Euskadi de padres y madres separados - Agipase)	Arantxa Bergara Picabea
NAGUSILAN Gipuzkoa	Javier Amas
Observatorio del Tercer Sector de Euskadi	Ainara Canto Combarro
Participación Ciudadana Ayuntamiento de Gasteiz	Amaia Lizoain Rodríguez
SAREGINEZ (Gipuzkoako Boluntariotza Elkarleen Sarea)	Jose Luis Elosua
SAREGINEZ (Gipuzkoako Boluntariotza Elkarleen Sarea)	Maria Jesús Garitano
SAREKIDE (Asociación de entidades de Voluntariado de Getxo)	Juan José Quiñones
Ayuntamiento de Getxo (Área de Servicios Sociales)	Isabel Barrenetxea
UNIVERSIDAD DE DEUSTO (Dpto. Trabajo Social. Facultad Ciencias Sociales y Humanas, San Sebastian)	Iker Uson González
	Imanol Zubero
	Alicia Suso

Eskerrik askoj